

PRIBATUTASUN POLITIKA

DATU TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAD
Helburua	UEFA EUROPA LEAGUErako sarrera eskaeren kudeaketa. Indarkeriaren aurkako araudiaren eskumenak betetzea
Legitimazioa	Interesdunaren baimena
Jatorria	Interesduna bera
Hartzaileak	Aurkako taldeen segurtasun departamentuak; Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak
Eskubideak	Datuak eskuratu, zuzendu eta kentzeko eskubidea du, bai eta beste eskubideak ere, informazio osagarrian adierazten denez.

Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Jakinazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen ardurapean tratatzen direla, zeinak hemen baitu helbide soziala: Anoeta Pasalekua, 1, 20.014 Donostia/San Sebastian, (Gipuzkoa). Zure ARCO eskubideak erabiltzeko, realsoc@realsociedad.eus email helbidearen bitartez jarri zaitezke gurekin harremanetan, bai eta telefono bidez edo bulegoetan bertaratuz ere.

Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Galdetegi honetan jasotako datuen tratamenduaren helburua da REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko lehen taldea UEFA EUROPA LEAGUEn bisitari gisa lehiatuko den partida bakoitzerako sarrerak erreserbatzeko galdetegi honetan emandako datuen titularrak egindako eskaera kudeatzea. Era berean, emandako datuen beste helburua izango da zale bisitarien segurtasuna kudeatzea, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen lana koordinatuz desplazamenduen jomuga diren lekuetan.

Galdetegi honetan emandako datuen tratamenduen ez da helburu komertzialetarako izango.

Zenbat denboran gordeko dira zure datuak?

REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek honen bitartez eskatutako zerbitzua gauzatzeko ezinbestekoak diren datuak baino ez ditu gordeko, eta gorde, ager daitekeen edozein erantzukizuni erantzuteko legez eskatzen den denboran baino ez da gordeko.

Zein da zure datuen tratamendurako legitimazioa?

Datuen tratamendua, funtsean, kasuan kasuko sarreraren eskaera egitean eskatzen den baimenean oinarritzen da. Baimen hori kentzeak edo beste eskubide batzuk erabiltzeak Klubari egindako erreserba gauzatzea baldintzatzen du. Dena dela, informazioaren tratamenduaren aurka agertzeko eskubideaz baliatuta baimena ukatu edo baimena kentzen bada, horrek ekarriko du egindako eskaerari uko egitea.

Zer jatorri duten zuren datuak?

REAL SOCIEDADek tratatutako datuak zaleak berak ematen ditu, kasuan kasuan, aipatutako sarreraren erreserbarako eskaera egiten duenean.

Nori jakinaraziko zaizkio zuren datuak?

Galdetegi honetan bildutako datu pertsonalak Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen esku jarriko dira, legeak hala aginduta. REAL SOCIEDADeko lehen taldea bisitari gisa lehiatuko den lekuetako atzerriko taldeen Segurtasun Departamentuaren esku ere utziko dira datu pertsonal horiek.

Zein dira zure eskubideak zure datuak ematen dizkiguzunean?

Edozein pertsonak dauka eskubidea dauka jakiteko ea berari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari diren REAL SOCIEDAD DE FUTBOLen.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta oker dauden bere datuak zuzentzeko edo, kasua bada, kentzeko ere, besteak beste datuak beharrezkoak ez badira hasieran ezarri zen helbururako.

REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek honako **komunikazio bide** hauek jartzen ditu zure esku, dagozkizun eskubideak erabili ahal ditzazun:

- Posta elektronikoa: realsoc@realsociedad.eus
- Posta helbidea, edo REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek helbide honetan dituen bulegoetara bertaratzea: Anoeta Pasalekua, 1, 20014 Donostia / San Sebastian, (Gipuzkoa).

Eskubideaz baliatzeko, beharrezkoa izango da beti interesduna identifikatzea NANaren edo antzeko dokumentu baten bitartez.

REAL SOCIEDAD DE FUTBOLi eman dizkiozun datuen kopia bat eskuratu nahi baduzu, hark fitxategi bat bidali ahal diozu erantsita zure posta elektronikoko helbidera eta datuak formatu normalizatu batean.

REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek eta bere fundazioak ahal den guztia egingo dute beren datuak beti eguneraturik egon daitezen. Halere, datuen zehaztasunari buruzko erantzukizuna interesdunaren esku dago; hori dela eta, datuetan aldaketarik baldin badago, mesedez jarri gurekin harremanetan ezarritako komunikazio bideen bitartez, aldaketa egiteko. REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek ez du batere erantzukizunik hartuko bere gain, aldaketak jakinarazteko obligaziorik betetzen ez bada.

Era berean, interesdunak eskubidea dauka bere datuak hirugarrenei jakinarazteari ezetz esateko, eta hori egiten badu esan nahi du sarreren eskaera ezeztatzen duela.

Komunikazio elektronikoen kasuan, mezuaren gorputzean bertan bide elektronikoa honetara informazioa bidaltzeari berariaz ezetz esateko bideak jarriko dira prest.

Zure eskubideei buruz gehiago jakin nahi baduzu edo eskumena duen agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkeztu nahi baduzu, kontsultatu dezakezu Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren web orrian, zehazki hemen: <http://www.agpd.es/>

Datu pertsonalak babesteko segurtasun neurriak.

REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek datu tratamenduaren arrisku mailarako eta pertsonen eskubideetan duen inpakturako beharrezkoak eta egokiak diren eta lege aplikagarriak unean-unean eskatzen dituen neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu ditu, datu pertsonalen tratamenduaren segurtasuna bermatzeko.

Hala ere, erabiltzaileak kontziente izan behar du gaur egun Interneteko segurtasun neurriak ez direla erasoezinak eta, honenbestez, ez dagoela ez-

legezko eta bidegabeko intromisioetatik erabat libre egoterik; eta halakorik gertatuz gero, ez litzateke REAL SOCIEDAD DE FUTBOLen erantzukizuna, kluba arduratsu ibili baita datuak Legeak xedatzen duenaren arabera babesteko.